



**Prensa-txostena**  
***Polotik Polora***  
**Donostia**

"la Caixa" Fundazioak eta Donostiako Udalak *National Geographic*-eko argazkilarien natura-irudi onenak aurkeztu dituzte

## ***Polotik Polora*, argazki-bidaia bat planetako azken paradisu naturaletan barrena**

- Munduko landare-espezieen erdiak baino gehiago eta ugaztun, hegazti, narrasti eta anfibioen heren bat baino gehiago lurrazalaren %2,3an bizi dira, desagertzen ari diren habitat ezberdinetan. Dibertsitate biologikoaren galera kezagarria da eta oso azkar areagotzen ari da.
- *Polotik Polora, bidaia bat natura paradisu handietara* erakusketak planeta babestearen garrantziaz kontzientziatu nahi du eta, era berean, hausnarketa egin gure bizimoduaren erruz, espezieek jasaten ari diren iraungipen-tasa altuaren eta habitat ezberdinen suntsipenaren inguruan.
- Erakusketak bidaia harrigarri bat egitera gonbidatzen gaitu, Lurraren naturgune ikusgarrietan barrena, horietako toki asko *hotspot* bezala dira ezagunak, eskualde ekologikoak dira, biodibertsitate handia dutenak eta giza jarduerak arrisku larrian jarri dituenak. Bidaia bat Artikotik Antartikaraino 52 irudi zirraragarriren bitartez, Lurreko bioma guztietan zehar.
- Argazkiak *National Geographic Society*-k duen artxibotik datoz, guztiak izen handiko natura-argazkilari ospetsuek egin dituzte. Besteak beste: Frans Lanting, Steve Winter, Paul Nicklen eta Tim Laman. Irudiek naturaren edertasuna eta hauskortasuna erakusten dute.
- Erakusketa 'Artea kalean' programaren parte da. Honen bidez, "la Caixa" Fundazioak zientzia, natura eta kultura jendearengana hurbildu nahi ditu, baina ohiko lekuetatik at, museo eta erakusketa aretoetatik haratago.

**Donostia, 2022ko azaroaren 10a. Eneko Goia**, Donostiako alkateak; **Ángel Garabieta** CaixaBankek Euskadin duen merkataritza zuzendariak; eta **Sonia Sáenz** "la Caixa" Fundazioak Euskadin duen lurralde ordezkariak, **Francisco Javier Gómez** erakusketako komisarioak lagundurik, *Polotik Polora, bidaia bat natura paradisu handietara* izeneko erakusketa inauguratu dute.

Erakusketan Lurrak Artikotik Antartikara dituen askotariko naturguneen 52 irudi eder daude ikusgai. Guztiek helburu bera partekatzen dute: planetak dituen eremu paregabe horien kontserbazioaren garrantziaz kontzientziaztea. Izen handiko 30 argazkilarien irudiak daude ikusgai. Hauetako batzuk *Wildlife Photographer of the Year* edo *World Press Photo* sari ospetsuak irabazi dituzte

"la Caixa" Fundazioaren lehentasunezko helburuen artean dago kultura, zientzia eta ezagutza gizartera hurbiltzea. Dibulgazioa pertsonen hazkundera sustatzeko oinarrizko tresna da, eta, horregatik, bi erakundeak lanean ari dira ezagutza adin eta prestakuntza-maila guztietako publikoetara hurbiltzeko.

*Artea klean* programa 2006an abiatu zen, eta harrezkero modernitateko erreferenteen sormen-lanak ekarri dizkie ikusleei. Besteak beste, Auguste Rodin, Henry Moore edo Sebastião Salgado bezalako sortzaileen lanak egon dira ikusgai. Oraingoan, *National Geographic Society*-rekin elkarlanean, programak zientzian eta naturan oinarritutako ildo berria integratzen du.

Gure planeta paregabea da, eta paregabeak dira erakusketa osatzen duten irudiak. Mostran, besteak beste, *hotspot* izeneko naturgune batzuk daude ikusgai, baita biodibertsitate handiko basa eremuak ere. Artikoak eta Antartikak garrantzia dute erakusketa honetan, izan ere eginkizun berezia betetzen dute klimaren erregulazioan eta, gainera, berotze globalaren ondorioz, desagertzeko zorian daude. Irudiek inguru berezi horietan barrena ibiltzeko aukera eskaintzen dute, inguru horiek funtsezko eginkizuna betetzen baitute planetaren osasunaren zaintzan.

### **Bidaia ikusgarria Lurreko biometan barrena**

Asiako oihanak, Afrikako sabana, Artikoa eta Antartika, eta beste natura paradisu batzuk gozatuko ditu bisitariak argazki-bidaia honetan zehar. Erakusketa bisitatzen duten pertsonak mundua iparretik hegora gurutzatuko dute, bost kontinenteak zeharkatuz. Oso irudi ederrak dira, ikusgarriak. Natura-argazkilari ospetsu sorta batek ateratakoak, hamaika orduz itxaron ostean eta

zorroztasun handiz, urteko irudirik onena hartzeko. Horien artean, Tim Laman dago, 2016ean *Wildlife Photographer of the Year* saria jaso zuena. Argazkilari honek asteak eman zituen, urrutiko kontrol bidezko hainbat kamerekin, Borneoko



Chobeko Parke Nazionala, Botsuana. © Frans Lanting / National Geographic  
Kalimantan, Borneo, Indonesia. © Tim Laman / National Geographic



oihanean zuhaitzean gora doan orangutanaren irudi ikusgarri hori lortzeko, Asiako hego-ekialdean.

### **Orangutana zuhaitz batetik gora igotzen Sonda eskualdean, Borneon (Asia)**

Lurretik 30 metrora, Borneoko orangutan hau gora doa piku preziatuen bila. Orangutanek oihanaren buru-mapa egiten

dute, eta fruta heldua noiz eta non aurkitu duten jakin badakite. Indonesiako baso tropikaletan urtero milaka hektarea galtzen dira mozketen eta olio-palmondoen plantazioen ondorioz, eta horrek animalia horien biziraupena kolokan jartzen du.

### **Elefanteak putzu batean Chobeko Parke Nazionalean, Botswanan (Afrika)**

Frans Lanting izen handiko argazkilariak 18 hilabete eman zituen Botswanan, eskualde horri buruzko erreportaje bat egiteko; gero, 1993an argitaratutako 'Okavango, Africa's Last Eden' liburuan moldatu zuen lana. Liburuaren azaleko irudia da erakusketan ikusgai dagoena. Lantingek 2018ko *Wildlife Photographer of the Year* saria irabazi zuen, hiru hamarkadatik gorako lan-ibilbidea aintzat hartzeko. Halaber, saria irudi horrekin iragarri zen.

Elefanteek berebiziko garrantzia dute sabana eta oihanetako ekosistemetan. Asiako marfil-eskaria asetzeko animalia horien ehizak muturreko

dramatikoetaraino txikitu ditu haien populazioak. Afrikako elefanteen heren bat Botswanan bizi da.



Hemiseko Parke Nazionala, Ladakh, India. © Steve Winter / National Geographic

### **Elurretako lehoiabarra, Hemiseko Parke Nazionala, India (Asia)**

Steve Winter argazkilariak 13 hilabete, trebetasun handia eta zortea behar izan zituen elurretako lehoiabar muzinaren irudia tranpa-kamerekin hilezkortzeko. Sorta horretako argazki batek irabazi zuen 2008an *Wildlife Photographer of the Year* sari

entzutetsuaren lehen saria.

Elurretako lehoiabarra, behinola mendi horietako erregea, mehatxupean bizi da gaur egun, ehizaren, meatzaritzaren eta habitat-galeraren ondorioz. Berotze globalaren erruz, lehoiabarren eta haren harrapakinen eremua murrizten ari da. Halaber, geroz eta ugariagoak dira artzainekin dituzten gatazkak.

Irudi horiek argazkirik sarituenean hiru adibide dira, bisitariak erakusketako ibilbidea amaitu aurretik **«Mehatxuak»** atalean aurkituko dituenak. Bederatzi salaketa-argazkiz osatutako mosaikoa da; irudi sorta aproposa, gure ekintzen inguruan eta haiek natur ingurunean duten eraginaz hausnartzeko.

Ingurunea izugarri eraldatzen ari da giza jardueraren ondorioz, hainbat argazkitan agerikoa den bezala: suteak, arrantza neurrigabea, baso-soiltzeak, kutsadura, klima-aldaketa..., Irudi horiek agerian uzten dute planeta bakar bat dugula eta gainerako izaki bizidunekin batera bizi garela. haien jarraipena eta osasun ona gure ekintzen mende baino ez daude. Eta beraien etorkizuna gaur hartzen diren erabakien menpe dago.

# POLOTIK POLORA

2022ko azaroaren 10etik abenduaren 9ra

**Alderdi Eder lorategiak**  
**Donostia**

**Publiko orokorra:**  
24 orduetan zabalik

**Bisita gidatuak publiko orokorrarentzat:**  
Larunbatetan, 18:00etan, gaztelaniaz  
Igantetan, 12:00etan, euskaraz  
Erreserbatu sarrerak hemen: [CaixaForum.org](https://CaixaForum.org)

**Eskolaumeen bisitak:**  
Aurretiatzko hitzordua: 900 80 11 37 telefono zenbakian

**"la Caixa" Fundazioaren Informazio Zerbitzua**  
Tel. 900 223 040  
Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara  
<https://caixaforum.org>

**La Caixa Fundazioaren Komunikazio Saila**  
Victoria Lobato: 629 732 351/ [vlcomunicacion@vlcomunicacion.com](mailto:vlcomunicacion@vlcomunicacion.com)  
Prensa-aretoa: <http://prensa.fundacionlacaixa.org>  
 [@FundlaCaixa](https://twitter.com/FundlaCaixa) [#CaixaForumDePoloaPolo](https://twitter.com/CaixaForumDePoloaPolo)